

# Bases para el xxix concurso literario en Euskera para autoría novel 2019

## Objeto y requisitos de las personas participantes

Es objeto de la convocatoria fomentar y promover la creación literaria en euskera realizada por autoría novel. Cada autor o autora podrá presentar un único trabajo por modalidad, trabajos que serán de tema libre, que estarán redactados en euskera y que deberán ser originales y no publicados. Podrán tomar parte en el concurso autoras o autores navarros o quienes sin serlo tengan establecido su domicilio en Navarra. No podrán presentar sus obras quienes hayan publicado a nivel individual más de un libro de carácter literario. No entran dentro de esta limitación las participaciones o colaboraciones literarias realizadas en revistas, medios periodísticos o publicaciones de carácter colectivo, ni tampoco las traducciones de obras literarias.

Las personas que hayan obtenido el primer premio en la misma modalidad en dos ediciones anteriores de este concurso no podrán volver a presentarse a esa modalidad.

**Modalidades del concurso** Las modalidades son las siguientes: Poesía, Narración y “Bertso-paperak” (versos dados por escrito conforme a las reglas formales del bertsolarismo).

**Extensión de los trabajos:** En la modalidad de poesía, los trabajos a presentar deberán abarcar un mínimo de 15 folios escritos por una cara a doble espacio.

En narración, el mínimo será de 15 folios escritos por una cara a doble espacio. En la modalidad de ‘bertso-paperak’, un mínimo de 25 estrofas que pueden versar sobre temas diferentes que constituyan de alguna forma una unidad y deben cumplir las leyes formales del bertsolarismo.

**Dotación económica** La convocatoria tiene una consignación presupuestaria máxima de 13.000 euros. Se establecen tres premios por cada modalidad: 2.500, 1.000 y 500 euros.

Además de estos premios, el tribunal podrá conceder hasta cuatro menciones a otros tantos trabajos, sin tener en cuenta la modalidad a la que hayan sido presentados. Estarán dotados con 250 euros, y, en el caso de que el Ayuntamiento proceda a realizar la publicación de los premios, serán incluidos en ella.

## Documentación que deberán presentar las personas interesadas, plazo y lugar

Los trabajos podrán presentarse hasta el día 5 de noviembre de 2019 inclusive en el Registro General del Ayuntamiento de Pamplona, calle Mayor 2, en los registros auxiliares, o mediante cualquiera de las modalidades previstas por la legislación vigente.

Deberán presentarse 5 copias de cada trabajo, firmados con un seudónimo y señalando claramente la modalidad a que concursan. Se acompañarán de un sobre cerrado en el que se den a conocer los datos de identidad: nombre y apellidos, dirección y teléfono (móvil y fijo) y correo electrónico, correspondientes al seudónimo utilizado.

Los trabajos en los que no figuren debidamente los datos personales no podrán ser considerados a concurso.

**Jurado** El Ayuntamiento de Pamplona nombrará un Jurado formado por la Concejala Delegada de Educación y Cultura del Ayuntamiento de Pamplona que actuará como presidenta, y tres personas expertas en literatura a propuesta, una de ellas, de la asociación Nafarroako Bertsozale Elkartea.

Actuará como secretario el técnico de programación cultural en euskera del Ayuntamiento de Pamplona o equivalente.

El jurado elevará al órgano competente del Ayuntamiento la propuesta de fallo del certamen, pudiendo consistir ésta en la declaración de los premios como desiertos en caso de que los trabajos no alcancen un mínimo de calidad.

## Plazo de resolución y de notificación

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de seis meses a partir de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra.

Los trabajos no premiados podrán retirarse del Área de Educación y Cultura (C/ Descalzos 72), en el plazo de dos meses después de haberse publicado la resolución. Transcurrido dicho plazo el Ayuntamiento podrá destruir los trabajos no retirados, salvo que se hayan formulado recursos contra la resolución.

Con el pago del premio, el Ayuntamiento de Pamplona adquiere del autor o autora, en exclusiva durante los dos años siguientes a la adopción de la resolución municipal mediante la que se aprueba el fallo del concurso, la posibilidad de proceder a la publicación de la obra premiada, teniendo derecho, durante ese tiempo a expresar la obra por cualquier medio o soporte tangible o intangible, actualmente conocido o que se invente en el futuro, comprendiendo todas y cada una de las modalidades de explotación, incluyéndose los derechos de reproducción en cualquier soporte o formato, dentro de los cuales y en particular abarca la edición en forma de libro y en soporte digital o numérico, así como los derechos de distribución y comunicación pública de la obra, para su explotación comercial en todo el mundo. Queda expresamente incluida la emisión y transmisión on-line de las obras y su puesta a disposición a través de las redes digitales interactivas, tipo Internet.

La participación en el concurso implicará la plena aceptación de sus bases y el sometimiento a las mismas de cuantas personas concurren con sus trabajos.

**Régimen de recursos** Contra la presente convocatoria, sus bases y las resoluciones administrativas que se adopten en ejecución de las mismas podrán interponerse, potestativamente, los siguientes recursos:

- Recurso de reposición ante el mismo órgano municipal autor del acto administrativo en el plazo de un mes a partir del día siguiente de la notificación o, en su caso, publicación del acto que se recurra.
- Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo de un mes siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.
- Recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses. Este plazo se computará a partir del día siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.

## Protección de datos personales

El Ayuntamiento de Pamplona es el responsable de los datos de carácter personal que van a ser utilizados con la finalidad de realizar la gestión de la subvención y la entrega del premio en el ejercicio de los poderes públicos. No se cederán datos salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder a los datos, rectificarlos en el caso de que no sean correctos y suprimirlos dirigiéndose al Registro General (C/Mayor 2, 31001 de Pamplona) o a la sede electrónica. Puede consultar el listado de tratamientos y la información adicional en [www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)

Las imágenes de la entrega de los premios pueden publicarse en la web corporativa del Ayuntamiento, redes sociales y puede ser difundido por distintos medios de comunicación

Este texto es un extracto sin valor jurídico-administrativo que sintetiza el contenido de las bases originales aprobadas por Resolución de la Concejala de Educación y Cultura, publicadas en el Boletín Oficial de Navarra.



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

## Egile berrientzako xxix Euskarazko Literatur lehiaketarako oinarriak 2019

Lanak aurkezteko epea:  
2019ko azaroaren 5era arte

# Egile berrientzako xxix. Euskarazko Literatur Lehiaketarako oinarriak 2019

## Xedea eta parte-hartzaileek bete beharreko baldintzak

Deialdi honen xedea da egile berriek euskarazko literatura sor dezaten bultzatu eta sustatzea. Egileek lan bana aurkezten ahalko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librea izanen dute, eta euskaraz idatzia izan beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak. Lehiaketan parte hartu ahalko dute nafar egileek edo nafarrak izan gabe, helbidea Nafarroan dutenak. Egileek beren izenpean literatur liburu bat baino gehiago argitaratu badute, ezin izanen dute lanik aurkeztu. Ez dira muga horren barnean sartuko aldizkarietan, kazetaritza-komunikabideetan edo argitalpen kolektiboetan argitaratutako parte-hartzeak edo kolaborazioak, ezta literatur lanen itzulpenak ere.

Lehiaketa honetako aurreko bi edizioetan modalitate berean lehen saria jaso dutenek ezin izanen dute berriz parte hartu modalitate horretan.

**Lehiaketaren modalitateak** Hona hemen modalitateak: Poesia, Narrazioa eta Bertso-papera (bertsoak idatzita aurkeztu behar dira, bertsoaritzaren formazko arauekin bat).

Lanen luzera: Poesia modalitatean aurkeztu behar diren lanek 15 orri eduki behar dute gutxienez, eta horiek alde bakar batetik eta tarte bikoitzaz idatzi behar dira.

Narrazioan, 15 orri idatzi behar dira, gutxienez, alde bakar batetik eta tarte bikoitzaz. Bertso-paperek gutxienez 25 bertso-ahapaldi izanen dituzte, elkarrekin nolabaiteko batasuna osatzen duten gai ezberdinak har ditzakete hizpide, betiere bertsoaritzaren arau formalak betez.

**Diru-zuzkidura** Deialdi honi gehienez ere 13.000 euro esleituko zaizkio. Hiru sari ezarri dira modalitate bakoitzeko: 2.500, 1.000 eta 500 eurokoak.

Sari horiez gain, epaimahaiak lau aipamen ematen ahalko ditu, gehienez ere, lau lani, zein modalitatean aurkeztu diren kontuan hartu gabe. Horiek 250 euroko saria jasoko dute, eta Udalak saritutako lanak argitara emanez gero, horiek ere jasoko dira argitalpenean.

## Interesdunek zer agiri aurkeztu behar duten, zein epetan eta non

Lanak 2019ko azaroaren 5a arte –hori barne– aurkeztuko dira Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia, 2), erregistro osagarrietan edo indarra duten legeek aurreikusitako edozein bideren bitartez.

Lan bakoitzaren bosna kopia aurkeztu beharko dira, izenorde batez sinaturik, eta argi adierazita zein modalitatean aurkezten den. Lanekin batera, gutunazal itxi bat aurkeztuko da, non sartuko baitira kasuan kasuko izenordeari dagozkion datuak: izen-abizenak, helbidea, telefonoa (mugikorra eta finkoa) eta helbide elektronikoa.

Baldin eta lan batean ez badira egilearen datuak behar bezala ematen, lana ezin izanen da lehiaketan onartu.

**Epaimahaia** Iruñeko Udalak epaimahaia izendatuko du: Iruñeko Udaleko Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ordezkaria arituko da epaimahaiburu, eta hiru literatur aditu izango dira epaimahaikideak, horietako bat, Nafarroako Bertsozale Elkartek proposatuta.

Idazkari-lanak Iruñeko Udaleko euskarazko kultur programazioko teknikariak egingo ditu, edo teknikari baliokide batek.

Epaimahaiak Udalaren organo eskudunari aurkeztuko dio lehiaketaren epaia, eta sariak eman gabe utzi ahalko ditu lanek behar besteko kaliterik erdiesten ez dutela iritziz gero.

**Ebatzi eta jakinarazteko epea** Ebatzi eta jakinarazteko epea gehienez ere sei

hilabetekoa izanen da, deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina.

Saritu gabeko lanak Hezkuntza eta Kulturako Alorrean (Descalzos kalea 72) berreskuratzen ahalko dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak suntsitzen ahalko ditu jaso ez diren lanak, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

Saria ordainduta, Iruñeko Udalak egilearengandik eskuratuko du saritutako obra argitaratzeko aukera, berarentzat bakarrik eta lehiaketaren epaia onesten duen udal-ebazpena noiz eman eta hurrengo bi urteetarako. Eskubidea izanen du, baita ere, lana gaur ezaguna den edo geroan asma daitekeen beste edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ezin ukituzkotan aurkezteko. Horrek barne hartzen ditu ustiatzeko modalitateak oro, hau da, lana edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzeko, eta horien artean, bereziki, liburu batean edo euskarri digital edo zenbakizkoan edizioa egiteko, baita lana banatzeko eta jenduraren paratzeko eskubideak ere, mundu osoko merkatuan ustiatzeari begira. Eskubide horien artean, berariaz daude sarturik hala lanak online igorri eta zabaltzea nola Internet erako sare digital elkarreragileetan eskura jartzea.

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar parte-hartzaileek oinarriak onartu eta haiei men egitea.

**Errekurtsoak** Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egin-tzaren egile den udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta bihamunetik aitzina.

- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta bihamunetik aitzina kontatuko da.

**Datu pertsonalen babesa** Iruñeko Udala da arduradun botere publikoek baliatuz dirulaguntza kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria [www.iruna.eus](http://www.iruna.eus) webgunean kontsultatu ditzakezu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratu daitezke, eta hedabide ezberdinetan zabaldu daitezke.

**Testu hau Hezkuntza eta Kulturako zinegotziak emandako ebazpenaren bidez onetsi eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara emandako jatorrizko oinarrien laburpena da, eta, horrenbestez, ez du balio juridiko-administratiborik.**



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

## Bases para el xxix concurso literario en Euskera para autoría novel 2019

Plazo de presentación de trabajos:  
Hasta el 5 de noviembre de 2019